



IZAERA URBANOKO BIDE PUBLIKOETAKO ERABILERA, TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Garapen iraunkorra sustatu eta hiriko nahiz menpeko toki erakundeetako bizitza-kalitatea zaintzeko konpromisoaren baitan, Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana bultzatu du Gasteizko Udalak, eta hurrengo urteotan hori gauzatzen jarraituko da.

Hauek dira Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren helburuak:

- Hiri garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera sustatzea, hirian mugitzeko benetako alternatibak izan daitezen, automobil pribatuen mendeko ez diren bizimoduak ahalbidetzeko.
- Oinezkoen alderdien sarea handitzea.
- Kalitateko espazio publikoa berreskuratzea, mugikortasunaz edo joan-etorriez bestelakoetarako: egoteko, jolasteko, elkartzeko, biltzeko eta abar.
- Autoen zirkulazioa bide nagusi jakin batzuetan barrena bideratzea, eta sare horretatik at ibilgailu motordunekin zirkulatzeko aukera gidarien burutik kentzea.
- Alderdi ekonomikoari dagokionez, mugikortasun eredu eraginkorrago bat lortzea, Gasteizen bizitasun ekonomikoari lagunduko diona, bertako kaleen erakargarrtasun komertziala zainduz, espazio publikoa errekuiperatzeaz batera merkataritza biziberrituz, zerbitzuak garatuz eta turismoarentzako erakargarrtasuna areagotuz.

Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana parte-hartzailea izan da hasiera-hasieratik. Plana idazteaz batera, hiriko herritar talde bat, Mugikortasun Iraunkorraren Herritar Foroaren baitan, mugikortasunaren alorrean adostasun giroa lortzen ahalegindu zen, etorkizuneko hiria gogoan. Hasiera batean herritar talde batek abian jarri bazuen ere gerora udalak ere bere egina duen Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritar Itunean dago jasota giro hori. Izan ere, aho batez erabaki zuen udalbatzak, 2007ko irailaren 28an, Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritar Itun horrekin bat egitea. Geroztik, udalbatzan ordezkariak duten talde politiko guztien arteko adostasunaren ildotik doaz mugikortasun politikak.

Interes orokorrak eta adostasun politikoak hala eskatzen dutelarik, eta Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritar Itunean jasotakoarekin bat etorriz, ez pertsonen osasuna, ez segurtasuna arriskuan jarriko ez duen mugikortasun-eredu baten alde egin du Gasteizko Udalak, hiriko bizitza-kalitatea kaltetuko ez duen eta airearen kalitatea eta ingurumena, oro har, arriskuan jarriko ez dituen eredu baten alde, hiriaren bizitasun ekonomikoa bermatuko duen eredu baten alde. Garraio kolektiboa bultzatzea erabaki da, eta garraio indibidualerako konponbide arrazoizkoagoak sustatzea, eragin txikiagoa dutenak (auto partekatua, bizikleta, oinez ibiltzea eta abar). Horrela, Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren eta Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritar Itunaren ildotik, auto pribatuaren bidezko mugikortasuna aipatutako beste mugikortasun-modu horien garapenaren mende geratuko da, eta espazio publikoa pertsonentzat berreskuratzearen mende, hau da, espazio publikoa zirkulazioaz eta mugikortasunaz bestetarako baliatzearen mende.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Bizikleta hiriko garraio modutzat baliatzeko aukera ezin bikainagoa ematen duten orografia, klimatologia eta eskala ezaugarriak dituen hiria da Gasteiz. 80ko hamarkadaz geroztik, bizikletentzako bide ugari ditu, eta bultzada handia eman zaie horiei azken urteotan, Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana garatzearen ondorioz, hedatu egin baitira, eta modernizatu, eta konponbideak bilatu baitzaizkie bide horien arteko loturak egiteko premiari.

Azken 15 urteotan hiriaren azalera ia-ia bikoiztu egin da, eta lehenago oinez nonahitik nonahira oinez joateko moduko hiria bazen ere, gaur egun distantzia handixkoak dituen hiria izatera igaro da. Orain, XXI. mendeko bigarren hamarkadako Gasteiz berrian, bizikletaz heldu daiteke errazki batetik bestera. Dударik gabe, fenomeno horrek eta, aldi berean, bizikleta mugikortasun alternatiba gisa sustatu izanak, berekin ekarri dute beren eguneroko joan-etorrietarako bizikletaz baliatzen direnen kopuruak gora egitea.

Kaleetan izan den ziklisten gorakada, nagusiki, bizikletaz zirkulatzen esperientziarik ez zuten herritarren eskutik etorri da, eta kasu askotan espaloietatik ibili ohi dira horiek, eta oinezkoen alderdian barrena, eta tirabirak sortu izan dituzte oinezkoekin, espazio publikoaren egonleku-kalitatea arriskuan jarri dutelarik.

Testuinguru horretan, berritu da Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantza, ziklistek espaloietan eta oinezkoen alderdian barrena zirkulatzearen inguruko zehaztapenak jasotzeko eta bizikletaz ibiltzearen inguruko udal araudia eguneratu eta garraio mota horren errealitate berrira moldatzeko, lehentasunezko garraibide gisa bultzatu nahi baita.

Udal teknikariek ordenantza berritzeko zirriborroa lantzeaz batera, Mugikortasun Iraunkorraren Herritar Forora deitu zen, herritarrek berritze lan horietan parte hartzerik izan zezaten.

Bizikleten, bestelako zikloen eta oinez ibiltzeaz bestelako gainerako garraio modu aktiboen zirkulazioa arautzen duen kapitulu bat sortu izana da ordenantzaren aldakuntza garrantzitsuenetarikoa bat.

Garraio kolektiboa (garraio publikoa, taxia, auto partekatua), oinez ibiltzea eta bizikleta lehentasunezko mugikortasun-modutzat hartzen dira, eta iritzi horren ondoriozkoa da hiri mugikortasuna arautzen duen ordenantza hau. Gasteizek mugikortasunaren arloan duen balio handienetako bat, hots, oinezkoen mugikortasuna, sustatzearen aldeko araubide-markoa ezartzea bilatzen du ordenantzak, garraio kolektiboa bultzatzeko eta bizikleta lehentasunezko ibilgailu gisa sustatzeko. Hiriko trafikoa lasaitzeko eta baketzeko politikak nahiz bizikleta lehentasunezko garraibide gisa —bestelako hiri mugikortasun-moduekin funtzionalki integratua— sustatzekoak ahalbidetuko dituen markoa ezartzen da.

Ordenantzak hiriguneko kale askotan gehieneko abiadura orduko 30 kilometrora murriztu izana ere azpimarratzekoa da. Dударik gabe, eragin handia izango du araubideak kaleetako trafikoa lasaitzean, bizikleta mugikortasunerako benetako alternatiba, seguru eta funtzionala, bihur dadineko baldintzen sorkuntzan eta bide segurtasunaren hobekuntzan, istripuen kopurua zein horien larritasuna murriztea ekarriko baitu.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gainera, eguneratu egin da ordenantza, ziklistek zirkulazio bidearen erditik zirkulatzerik izan dezaten, edo galtzadan egokitutako bideak erabil ditzaten, nora doazen ere, hartara autoek segurtasun tartea zaindu dezaten bizikletetatik, eta zenbait kale eta bidetan, zeinetan abiadura orduko gehienez ere 30 km-ra mugatua baitago, autoek bizikleten atzetik zirkula dezaten, haiek aurreratu gabe, beren abiadura haienera egokitzen dutelarik.

Ordenantza eraberritu da trafiko lasaitua duten hainbat kaletan bizikletek kontrako noranzkoan zirkulatu ahal izan dezaten. Horrek hirian bizikletaz ibiltzea erraztuko du, eta kale horietan lehentasunezko ibilgailu izanik, beste ibilgailuen maila berean egotea ahalbidetzen dio.

Orobat eraberritu da ordenantza bizikletek atoiak eramaterik izan dezaten, edo erdi-atoiak, salgaiak nahiz pertsonak garraiatzeko.

Bizikletak eta bestelako zikloak, adibidez, mugikortasuna murriztua duten pertsonak gidatutakoak espaloietan eta oinezkoen alderdietan barrena ibiltzeari dagokionez:

- 14 urtetik beherakoek nahiz mugikortasuna murriztua duten pertsonak eta beren lagunek gidatutako bizikletek eta bestelako zikloek espazio horietan barrena zirkulatzeko baimentzen da, oinezkoen dentsitateak ziklistari aukera ematen badio haien lehentasuna errespetatzeko.
- bizikletaz edo bestelako zikloaz zirkulatzeko baimentzen da oztoporik gabeko 3 m-tik gorako zabalerako oinezkoentzako lekua duten kaleetan barrena, baldin eta bertan bizikletentzako biderik, 30 eremurik edo egoitza-kalerik ez badago, Zirkulazio Araudi Orokorren 159. artikuluan aurreikusitakoaren arabera seinaleztatuta.

Ordenantzak xedatzen duenarekin bat, azpimarratu beharra dago, nolana ere, bizikleten zirkulazioa, oinezkoen alderdietan, baldintzatuta egongo dela, ezingo baitu arriskuan jarri espazio publikoaren egonleku-kalitatea, ezta oinezkoak ere. Hartara, aurreikusten da zenbait kale eta orduetegitan, segurtasunari eta erabileren bateragarritasunari buruzko irizpideak aintzat harturik, bizikleten zirkulazioa debekatzea espaloi eta oinezkoen alderdietan, mugikortasuna murriztua dutenek nahiz 14 urtetik beherakoek gidatutako zikloena izan ezik.

Espaloiak eta oinezkoen alderdiak ibilgailuek zirkulatzeko lekuak ez direla jakinik ere, ziklisten mugikortasuna arautzen delarik bateragarri egin da bizikleta hiriko mugikortasunerako alternatiba gisa sustatzea egonleku-kalitatea zaintzearekin, hiri-inguruneke espazio publikoa aldeztearekin eta oinezkoen mugikortasuna babestearekin. Horrela, bizikletari, lehentasunezko ibilgailu gisa, ordenantza honetan ematen zaion tratamenduak zentzua dauka Gasteizko Udalak bere egina duen eta Mugikortasun Iraunkorren eta Espazio Publikoaren Planean jasota dagoen konpromisoaren baitan, ziklistentzako oinarrizko bide sare baten eraikuntzarekin (gaur egun 120 km dira, gutxi gorabehera) eta Gasteizko mugikortasun motorizatua taxutzen duten hiriko bideen sare nagusiaren parte ez diren kaleetako trafikoa lasaitzearekin.

Zalantzarik gabe, arauen, azpiegituren eta sustapenaren alorreko neurri horiek guztiek lagunduko dute bizikleta mugikortasunaren benetako alternatiba bihurtzen, posible izan daitezen hirian auto pribatuaren mende ez dauden bizimoduak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Halaber, araudia Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren baitan salgaiak hirian banatzeko bultzatzen ari den eredu berriari egokitzeko, zamalanak arautzen dituen ordenantzaren artikulua eguneratu da.

Gainera, aukera hau baliatu da testua eguneratzeko, trafikoaren arloan izandako azken lege-berrikuntzak aintzat harturik, eta aldakuntza txikiagoren bat ere egiteko, udalerriko hiri mugikortasunaren errealitateari dagokionean.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

XEDAPEN OROKORRAK:

1. artikulua: Eskumena

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak nahiz Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onetsi zeneko martxoaren 2ko 339/1990 LEDak trafikoaren eta zirkulazioaren alorrean Udalarai aitortzen dioten eskumenaz baliaturik ematen da ordenantza hau.

2. artikulua: Xedea

Bide urbanoen erabilera arautuko du ordenantza honek, trafikoari dagokionez arautu ere; orobat arautuko du horren antolamendua, zaintza eta kontrola, arau-haustekak salatu eta zigorra jartzea, eta kautelazko neurri gisa ibilgailuak gelditu atxikitzea, bide publikoetatik kentzea nahiz gordetzea.

3. artikulua: Aplikazio eremua

Ordenantza honetan arautzen direnak Gasteizko udalerriko udal eskumeneko bide publiko guztietan aplikatuko dira.

I. TITULUA: BIDE URBANOETAKO TRAFIKOAREN ETA ZIRKULAZIOAREN ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA: PRINTZIPIO OROKORRAK

4. artikulua: Legedi orokorraren aplikazio osagarria

Udal ordenantza honen osagarri, honako hauek aplikatuko dira: martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua, zeinen bitartez onetsi baitzen Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua; martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsi zen Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aldatzen duen azaroaren 23ko 18/2009 Legea eta horiek garatzen dituzten bestelako araudi-xedapenak.

5. artikulua: Trafiko antolamendu eta kontrolerako neurriak

5.1.- Egokitzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izango dituzte udal agintariak trafikoaren antolamendurako, ibilgailu guztien edo batzuen nahiz oinezkoen zirkulazioaren zer-nolakoak izaera finkoz edo aldi baterako baimendu, aldatu, hura murriztu nahiz debekatzeko; halaber, aparkamendua, zamalanak eta pertsona nahiz salgaien garraioa berrantolatu nahiz arautu ahal izango dituzte.

5.2.- Udaltzaingoak aldi baterako aldatu ahal izango du hiriko alderdiren bateko zirkulazioa, baita pertsona nahiz ibilgailuei lekuren batera jotzea debekatu ere; horretarako, beharrezko



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

diren seinaleak jarri edo kendu ahal izango ditu behin-behineko izaeraz, baita beharrezko diren neurriak hartu ere, segurtasunaren eta zirkulazio egokiaren mesedetan.

5.3.- Aparkamenduaren, zirkulazioaren nahiz pertsona, ondasun edo ibilgailuen garraioaren alorrean dela udaltzainek dela Aparkamendu Kontrolerako Zerbitzuko zaindarien adierazitakoek lehentasuna izango dute lehendik dagoen edozein seinale edo arauen aldean, eta berehalakoan bete beharrekoak izango dira.

5.4.- Udal agintariek aldi baterako debekatu ahal izango dute ibilgailuak aparkatzea baimendutako jardueretarako erabiltzekoak diren lekuetan, baita konponketa, seinaleztapen, mantentze edo garbiketa lanak egin behar diren lekuetan ere. Horretarako, mugatu egingo dira eremu horiek, 24 ordu lehenagotik seinaleztatuz debekua argibide seinaleen bitartez, neurria zein unetatik aurrera indarrean izango den adierazten delarik. Ezingo dira inolaz ere mugikortasun murriztua dutenentzat erreserbatutako leku guztiak kendu, ezta aldi baterako ere. Hartutako lekuan mugikortasun murriztua dutenentzako aparkaleku bat badago, aparkatzea debekatuta dagoen leku horren inguruan beste aparkaleku bat egokitu beharko da eta seinaleztatu.

II. KAPITULUA: JOKABIDE ARAUAK

6. artikulua: Oztopoak, bide publikoan

6.1.- Debekatuta egongo da bide publikoan edukiontzi, mahaitxo, kiosko, saltoki nahiz bestelako oztopo nahiz objekturik jartzea aldez aurretik udal baimena eskuratu gabe, eta behar bezala babestu, seinaleztatu eta argiztatu gabe, erabiltzaileen segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko modu egokian, delako baimenean horretarakoxe jartzen diren arauen ildotik.

6.2.- Udal agintariek, beren aldetik, kendu egingo dituzte objektu, instalazio eta oztopoak, gastuak interesdunaren kontura direla, baldin eta ondorengo zirkunstantzietakoren bat egokitzen bada:

- Behar den baimena eskuratu ez izana.
- Delako baimenean adierazitako epea igaroa izana.
- Baimenean jarritako baldintzak bete ez izana.
- Baimena ematea ekarri zuten zirkunstantziak desagertu izana.

6.3.- Orobat kenduko dira objektu, instalazio eta oztopoak, udalaren kontura kendu ere, baldin eta —nahiz eta behar den udal lizentzia izan— beharrezko gertatzen bada segurtasun nahiz osasun eta higiene arazoak direla eta; baita obrak egin beharra, ikuskizunak bideratu beharra, behar bezala baimendutako segizioak igaro beharra edo antzekorik —halako neurririk hartzea justifikatzen duenik— gertatuz gero ere.

6.4.- Edukiontziak, mahaitxoak, kioskoak, saltokiak eta hiriko bestelako elementuak jartzeko erreserbatutako lekuek 'aparkaleku-erreserba' izaera izango dute, baldin eta galtzadan badaude. Nolanahi ere, Bide publikoan egiten diren obra eta lanetarako seinaleak eta balizak arautzeko ordenantzan eta Gasteizko ostalaritza establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzan xedatutakoa aintzat hartu beharko da. Ezingo da hartu mugikortasuna murriztua dutenentzat egokitutako aparkalekurik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

7. artikulua: Seinaleztapena

7.1.- Hiriko sarreretan jarrita dauden eta aldean "VITORIA-GASTEIZ" idatzia duten zirkulazio seinaleek hirigune osoan izango dute indarra.

7.2.- Zirkulazio nahiz aparkamendu muga jakinak dituzten eremu edo barrutien sarreran jartzen diren eta horien aipamena nahiz dagokien piktograma erakusten duten zirkulazio seinaleek delako eremu edo barruti osoan izango dute indarra.

7.3.- Ezingo da zirkulazio seinalerik jarri alde zuzenetik udal baimena eskuratu gabe.

7.4.- Udal agintarien iritziz interes publikoa duten informazio-seinaleak bakarrik baimenduko dira.

7.5.- Ezingo da publizitaterik jarri zirkulazio seinaleetan, ezta horien ondoan ere.

7.6.- Debekatuta egongo da erabiltzaileei semaforoak, seinaleak, pertsonak eta zirkulatzen ari diren ibilgailuak behar bezala ikustea galarazi edo zailduko liekeen nahiz arreta galtzea ekar lezakeen markesina, kartel, iragarki edo instalaziorik jartzea. Orobat debekatzen dira irisgarritasuna oztopatu edo mugatzen dutenak.

7.7.- Udal agintariek berehalakoan kenduko dute behar bezala baimenduta ez dagoen edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituen seinale oro; halakoetan, jarri dituztenen kontura izango dira gastuak edo, modu subsidiarioan, onuradunen kontura.

8. artikulua: Gelditzea

8.1.- Pertsonak hartu nahiz uzteko asmoz edo gauzak kargatu nahiz deskargatzeko edozein ibilgailuk egiten duen geldialdia joko da 'gelditze'tzat, baldin eta bi minututik gorakoa ez bada. Behar adina luzatuko da denbora hori mugikortasun murriztua duten pertsonak hartu edo utzi behar direnean.

8.2.- Gelditzea gertatuz gero, gidariak ezingo du autoa utzi, eta mugikortasun murriztua duten pertsonak hartu edo uzteko edo salbuespen gisa egiten badu, bistan eduki beharko du, eta bertatik kendu hala galdatzen zaion unean bertan edo zirkunstantziak hala eskatzen dutenean.

8.3.- Espaloirik gabeko kaleetan, gelditzean, metro bateko tartea utzi beharko da ibilgailuaren eta gertueneko etxarrearen artean, besterik dioen seinalerik denean salbu.

8.4.- Autobusek, hiriko nahiz hiriarteko lineetakoak izan, udal agintariek berariaz adierazitako nahiz seinaleztatutako geltokietan bakarrik hartu nahiz utzi ahal izango dituzte bidaiariak. Bizi-taxien zerbitzurako, bereziki erdialdean, gelditzeko lekuak finkatu ahal izango ditu udalak.

8.5.- Ikasle-garraiorako zerbitzua duten ikastetxeen titularrei galdatu ahal izango diete udal agintariek ikasleak hartzeko nahiz uzteko ibilbideak proposa ditzatela. Horiek onartu



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ondoren, agintari horiek berek geltokiak finkatu ahal izango dituzte ibilbide bakoitzaren barruan, eta debekatuta egongo da geltoki horiez kanpo ikaslerik hartzea. Mugikortasun murriztua duten pertsona igo eta jaisteko egokituta egon beharko dute geltoki horiek.

8.6.- Erabat debekatuta egongo da gelditzea:

8.6.1.- Hala seinaleztatuta nahiz arauz debekatuta dagoen lekuetan, salbu eta gaixorik dauden nahiz mugikortasun murriztua duten bidaiariak hartu edo uzteko, edo larrialdi edo segurtasun zerbitzuak eta baimendutako ibilgailuak direnean.

8.6.2.- Alkatearen xedapena dela medio zaintza berezikotzat nahiz trafiko-intentsitate handikotzat jotzen diren kaleetan, salbu eta hartarako seinaleztatutako lekuetan, izanez gero.

8.6.3.- Pertsona nahiz ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen den lekuetan.

8.6.4.- Babesleku, erdibitzaile eta babesguneen nahiz trafikoa bideratzeko bestelako elementuen gainean.

8.6.5.- Ibilgailuak eraikinetara sartzeko pasabideak oztopatzen direla, horiek behar bezala seinaleztatuta egonik.

8.6.6.- Pertsonak eraikinetara sartu nahiz horietatik ateratzeko erabilera normala oztopatzen denean.

8.6.7.- Espaloi, oinezkoen esparru eta lorategietan.

8.6.8.- Pasonibel, oinezkoen pasabide, ziklisten pasabide eta bestelako ibilgailuentzat erreserbatutako lekuetan.

8.6.9.- Zirkulaziorako nahiz zenbait erabiltzaileren zerbitzurako eta ez bestetarako erreserbatutako bide nahiz bide zatietan.

8.6.10.- Hiriko garraio publikorako eta ez bestetarako aparkaleku nahiz geltoki diren lekuetan.

8.6.11.- Mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuentzat erreserbatutako eta hala seinaleztatutako lekuetan.

8.6.12.- Hiriko garraio publikoak bakarrik erabiltzeko diren bideetan eta bizikletek bakarrik erabiltzeko direnetan.

8.6.13.- Zerbitzu publikoen, erakunde ofizialen nahiz larrialdiko zerbitzuen ibilgailuentzat erreserbatutako eta hala seinaleztatutako lekuetan.

8.6.14.- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako espaloi beheaguneetan.

8.6.15.- Tranbien errailen gainean edo hain gertu horiengandik non zirkulazioari enbarazu egin dakioken.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

8.6.16.- Zubi eta pasabide jasoetan nahiz horien azpian.

8.6.17.- Izkina, bidegurutze nahiz bidebanatze batetik 5 metro baino gutxiagora.

8.6.18.- Erabiltzaileei seinaleak ikustea galaraziko liekeen nahiz maniobrak egitera behartuko lituzkeen lekuetan, baita bide publikoaren gainerako erabiltzaileei —bereziki oinezko eta ziklistei— arriskua dakarkienez ere, haiek ikustea galarazten dielako.

8.6.19.- Zirkulazio-noranzkoaren kontrako aldera.

9. artikulua: Ibilgailu-uztea

9.1.- Ibilgailu-uztetzat joko da ibilgailua geldirik uzte oro, baldin eta bi minututik gorako iraupena bada, eta ez bada zirkulazioak hartara beharturik, arauzko aginduren bat betetzearren edo mugikortasun murriztua duten pertsonak hartu edo uzteko gertatzen. Hala bada, Ordenantza honetako 8.1 artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

9.2.- Salbu eta besterik seinaleztatzen denean, ilaran utzi beharko dira ibilgailuak, hau da, galtzadarekiko paralelo, zoladuran markatutako perimetroaren barruan eta espaloitik ahalik eta gertuen, isurbidea libre utzirik, espaloirik gabeko kaleetan izan ezik; horietan, izan ere, 8.3. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

9.3.- Beste seinaleztapenik ezean, zirkulazio noranzko bikoitzeko kaleetan ibilgailua eskuineko aldean —zirkulazio noranzkoaren arabera— ilaran uztea baimenduta dagoela ulertuko da. Zirkulazio noranzko bakarreko kaleetan modu berean utzi beharko da ibilgailua, eta kalearen zabalerak enbarazurik gabe hala egiteko aukera ematen duenean bakarrik ahal izango da ezkerreko aldean ere utzi. Noranzko batean ibilgailuen zirkulaziorako bidea eta kontrako noranzkoan bizikleten zirkulaziorako bidea duten kaleetan, galtzadaren ezkerreko aldean aparkatu ahal izango dira ibilgailuak, beren noranzkoan eta bizikletenaren kontrakoan, baldin eta horretarako mugatutako lekurik badago. Horretarako nahiz bertatik ateratzeko maniobra egiterakoan, bizikletentzako bidean sartu ahal izango dira ibilgailuak, arreta bereziarekin egin beharko bada ere.

9.4.- Zirkulazioari enbarazurik ez egiteko moduan utzi beharko da ibilgailua, eta kalearen gainerako erabiltzaileentzat arriskurik sortu gabe. Kasu guztietan, inolaz ere berez mugituko ez den eran utzi beharko dute ibilgailua gidariek, horretarako beharrezko diren neurri egoki guztiak harturik.

9.5.- Gainerako erabiltzaileei geratzen den lekua erabiltzeko ahalik eta aukerarik handiena emateko moduan utzi beharko da ibilgailua.

9.6.- Ezingo da bide publikoetan, mugitzen duen ibilgailutik bereiz, atoirik utzi, ezta autobus, traktore, karabana nahiz 3.500 kg-tik gorako gehieneko pisu baimendua duen ibilgailurik ere, ez bada alkatearen dekretu nahiz bando baten bidez berariaz baimendutako modu, leku eta aldietan.

9.7.- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuetan ibilgailu hauek baino ezingo dira aparkatu: pertsona horiek gidatzen dituztenak edo horiek eramateko baliatzen direnak, zeinek udalak emandako bereizgarria —Europar Batasuneko



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

eredu homologatua— eduki beharko baitute haizetakoan jarrita, ibilgailuaren matrikula bertan ageri delarik.

Baldin eta udal jardueraren ondorioz edo udal baimena dela tarteko mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku bat edo hainbat hartu edo kentzen badira, beste horrenbeste jarri beharko dira inguruan.

9.8.- Udal agintariek, inoiz edo behin, hiriko auzo edo alderdi jakinetan ibilgailuak uzteko aukera mugatu ahal izango dute, eta hartarako baimena zenbait ibilgailuri bakarrik eman. Ezingo dira inolaz ere mugikortasun murriztua dutenentzat erreserbatutako leku guztiak kendu, ezta aldi baterako ere. Aldi baterako mugatu den eremuan mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkalekuak badaude, aparkatzea debekatuta dagoen leku horren ondoan beste horrenbeste aparkaleku egokitu beharko dira eta seinaleztatu..

9.9.- Bizikletak eta gainerako zikloak oinezkoentzako alderdi, espaloi nahiz ibiltokietan utzi ahal izango dira, udal agintariek ezartzen dituzten leku erreserbatuetan.

9.9.1.- Berariaz bizikletentzat diseinatutako aparkalekuak bizikletak eta bestelako zikloak (mugikortasun murriztua dutenena barne) ez beste uzteko izango dira.

9.9.2.- Berariaz horretarako egokitutako lekuetan utzi beharko dira bizikletak, propio horretarako jarritako euskarrietan behar bezala lokarrituta. Leku librerik izan ezean, hiri altzariren bati lotuta utzi ahal izango dira bizikletak, baldin eta horrekin hiri altzaria hondatzen ez bada, zertarako den hartarako erabiltzea galarazten ez bada eta oinezkoen ibilbideak, irisgarritasuna nahiz ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen ez bada.

9.9.3.- Nolanahi ere, oinezkoen joan-etorriak ez oztopatze aldera, gutxienez 2 metroko pasabidea errespetatu beharko da. Orobat utzi beharko da nahikoa tarte, bizikleten gainerako erabiltzaileek aparkatutako bizikletak hartzerik eta maniobrak egiterik izan dezaten.

9.9.4.- Berariaz egongo da debekatuta bizikletak zuhaitzei lotzea, baita landare-ontzi, landare-hesi eta hiriko bestelako apaingarri ere.

9.10.- Motozikleta eta ziklomotorrak galtzadan uzten direnean, baterian egin beharko da, eta zoladuran markatutako perimetroaren barruan.

9.10.1.- Motozikletak eta ziklomotorra, oinezkoentzako alderdi, espaloi nahiz ibiltokietan utzi ahal izango dira, udal agintariek ezartzen dituzten leku erreserbatuetan, non eta horietara sartzeak ez dakarren berekin ibilgailu horiek oinezkoen alderdietan barrena zirkulatzea.

9.10.2.- Motozikleta eta ziklomotorrentzat diseinatutako aparkalekuak horiek eta ez beste uzteko izango dira.

9.10.3.- Bai TAOren bitartez araututako eremuetan, bai eremu libreetan, bide publikoko aparkalekuak, ikuseremu txikiagatik arriskutsu izan daitezkeen lekuetan kokatuta daudelarik, hala nola kale-elkargune eta garaje-pasabideetan, motozikleta eta ziklomotorrek



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

bakarrik erabiltzeko xedatu ahal izango dira, gidari eta oinezkoen ikuspen-angelua hobetze aldera.

9.11.- Salgaiak garraiatzeko esku-gurdiak uzteari dagokionez, ziklomotorrentzat xedatu den modu berean jokatu beharko da; salbuespen gisa, ordea, ilaran utzi ahal izango dira 1,70 metrotik gorako luzera izanez gero.

9.12.- Debekatuta egongo da ibilgailuak uztea ondorengo kasu eta leku hauetan:

9.12.1.- Hala seinaleztatuta edo arauz debekatuta dagoen lekuetan.

9.12.2.- Ibilgailuak gelditzea debekatuta dagoen lekuetan.

9.12.3.- Bigarren ilaran, baita lehen ilarako lekua zerbaitek oztopatzen duenean edo babes elementuren batek hartua dagoenean ere.

9.12.4.- Bide publikoko leku berean, zazpi egunetik gora, segidan.

9.12.5.- Zirkulazio noranzkoaren kontrako aldera, 9.3. artikuluan ezarritako salbuespenak salbuespen.

9.12.6.- Baimendutako ibilgailuek, salgaiak hartu eta uzteko erreserbatutako leku seinaleztatuetan, halako zereginetan ari ez direnean.

9.12.7.- Baimenduta ez dauden ibilgailuek, salgaiak hartu eta uzteko erreserbatutako leku seinaleztatuetan.

9.12.8.- Ikuskizun edo ekitaldi publikoetarako diren eraikinen sarreren aurreko aldean, haiek egiteko diren orduetan; izan ere, zaildu egingo bailukete horrekin jende-oldearen irteera, larrialdirik gertatuz gero.

9.12.9.- Behar bezala utzita dagoen beste ibilgailuren baten irteera zailtzeko moduan.

9.12.10.- Obrak, ekitaldi publikoak edo kirol ekitaldiak direla eta behin-behingo hala seinaleztatutako lekuetan.

9.13.- Ibilgailuak uzteko aukera aldi baterako mugatu den eremuan mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkalekuak badaude, aparkatzea debekatuta dagoen leku horren inguruan beste horrenbeste aparkaleku egokitu beharko dira eta seinaleztatu.

10. artikulua: Oinezkoen alderdiak

10.1.- Honako hauek izango dira oinezkoen alderdiak: udal administrazioak ibilgailuen zirkulazioa —erabat edo neurri batean— eta edozein ibilgailu edo horietako zenbait bertan uztea debekatu duen kale eta bide publikoak.

10.2.- Turismo-ibilgailuek ezingo dute oinezkoen alderdietan barrena zirkulatu, eta ezingo dira bertan utzi, salbu eta berariazko baimena dutelarik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

10.3.- Motor eta ziklomotorrek ezingo dute inolaz ere zirkulatu oinezkoen alderdian barrena, hots, espaloi, ibiltoki, plaza eta oinezkoentzako bestelako lekuetan barrena.

10.4.- Bizikleta, ziklo, irristailu eta antzekoek espaloi eta oinezkoen alderdian barrena zirkulatzearen ingurukoak ordenantza honen I. tituluko III. kapituluan arautuko dira.

10.5.- Oinezkoen alderdien sarrera eta irteeretan elementu mugikorak erabili ahal izango dituzte udal agintariek, delako barrutira ibilgailurik sar ez dadin, ezta hartan barrena zirkulatu ere.

10.6.- Oinezkoen alderdian hainbat eratakoa izan daiteke zirkulatzeko eta ibilgailuak uzteko debekua:

1.- Haren perimetroaren barruko kale guzti-guztiak edo horietako bakar batzuk bakarrik har ditzake.

2.- Aldez aurretik ezarritako orduetara mugatu daiteke, ala ez.

3.- Izaera finkoa izan dezake, edo asteko egun jakin batzuetarako bakarrik izan.

10.7.- Edozein izanik ere jarritako mugak, ez dute eraginik izango honako ibilgailu hauen zirkulazioari eta horiek bertan uzteari dagokionez:

1.- Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren ibilgailuak, poliziarenak, anbulantziak eta, oro har, larrialdietarako ibilgailuak.

2.- Gaixoak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak garraiatzen dituztenak, lineaz kanpoko garraioko ibilgailuak barne.

3.- Alderdi horretan dagoen baimendutako garajeren batetik ateratzen edo hartara sartzen ari direnak.

4.- Zamalanak egiten ari diren baimendutako ibilgailuak, horretarako baimena ematen zaien kale eta orduetan.

5.- Udal agintarien ebazpen arrazoituaren bitartez berariaz debeku horretatik salbuesten diren ibilgailuak.

10.8.- Oinezkoen alderdian jarritako mugetako batzuetatik edo zenbaitetatik libre utzi ahal izango dituzte udal agintariek ibilgailu jakin batzuk, horretarako arrazoirik izanez gero; bereziki, pertsonak garraiatzeko bizikleta eta trizikloak, eta mezularitza nahiz publizitate zerbitzuenak.

10.9.- Salbuespen kasuetan, oinezkoen alderdian barrena zirkulatzeko delarik horretarako baimena duten ibilgailu motordun, ziklomotor, bizikleta, ziklo, monopatin, motorrik gabeko irristailu eta antzekoekin, arreta berezia jarriz eta oinezkoen lehentasuna errespetatuz egin beharko da.

11. artikulua: Garraio publiko edo kolektiboaren geltokiak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Garraio publiko edo kolektiborako zerbitzuetako bakoitzak erabiltzeko izango diren geltokiak eta egin ahal izango dituzten geldialdiak zehaztu ahal izango dituzte udal agintariek.

12. artikulua: Zamalanak

12.1.- Salgaiak kargatu eta deskargatzeko bide publikoetan egiten diren lanak horretarako erreserbatutako eremuetan egin beharko dira, jarritako ordutegiaren barruan, eta honelakoekin bakarrik:

1.- Ibilgailu industrialak, komertzialak edo misto egokituak, zirkulazio-baimeneko sailkapenaren arabera, edo, bestela, TAO merkataritza txartela daukatenak eta, autoak ez izanik, salgaiak garraiatzeko baimenduta daudenak.

2.- Zama eramateko atoa duten bizikleta eta zikloak edo banaketarako bestelako ibilgailu txikiagoak, ohiko motor trakzioaz bestelakorik baliatzen dutenak (eskorgak eta orga elektrikoak, trakzio plataformak eta abar).

Zenbait kale eta eremutan, salgai jakin batzuk banatzeko eta ordutegi jakinetan, ibilgailu mota bereziak bakarrik erabili ahal izatea erabaki ahal izango du udalak, lehentasuna ematen diolarik beren ezaugarri teknikoengatik eta propulsiio sistemagatik ingurumenean eragin txikiena —emisioak eta zarata— duten eta bide publikoan lekuri gutxien hartzen duten ibilgailuen erabilerari. Alkatearen dekretua dela medio zehaztuko dira halako kale eta eremuak, edo horiek aldatu nahiz zabaltzea xedatuko, eta orobat ezarriko zer motatako ibilgailuak egongo diren baimenduta bertan.

Baimendutako ibilgailuek zamalanak egiten ari diren bitartean baino ezingo dituzte okupatu horretarako erreserbatutako eremuak, eta, beraz, legez kanpoko erabileratzat joko da horiek delako lan horiek egiteko ez bestetarako baliatzea.

Nolanahi ere, baimendutako ibilgailuaren titularrak edo hura alokairuan hartua duenak Ekonomi Jardueren gaineko Zergan izena emanda egon beharko du.

12.2.- Garraiatzen den zamaren antolamenduari eta neurriei buruzko muga eta debekuei dagokienean, hori arautzen duten araudi orokorretan xedatutakoa aintzat hartu beharko da, ezingo baitira gaingitu baimendutako gehieneko pisuak, ezta garraiatzen den zamaren gehieneko luzera, zabalera eta garaiera ere. Salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailu komertzial eta industrialen motak eta zirkulazio ordutegiak mugatu ahal izango dituzte udal agintariek, egokitzen jotzen dutelarik, baita muga horrek zein kaleri eragiten dien ere.

12.3.- Honela egingo dira zamalanak:

12.3.1.- Nagusiki, merkataritza eta industria lokalen barruan, horretarako egoki diren baldintzak bete beharko baitituzte horiek.

12.3.2.- Gisa horretako lokalak zabaltzeko lizentziarik emango bada —beren luze-zabala, helburua edo kokalekua kontuan izanik arrazoizkoa izaki pentsatzea ohikoak izango direla halako zamalanak, eta aski maiz egin beharrekoak—, nahikoa leku erreserbatu beharko dute haien titularrak barruan, zeregin horietarako.



12.3.3.- Merkataritza eta industria lokalen zer-nolakoek ez badute aukerarik ematen zamalanak barruan egiteko, hartarako erreserbatutako leku-orduetan egin beharko dira halako zereginak.

Hala ere, baimena eman ahal izango da zamalanak finkatutako leku-orduetatik kanpo egiteko, berariazko udal baimena dela medio, baldin eta ez auzokoei ez kalean barrena doazenei enbarazurik egiten ez bazaie, eta irisgarritasunari eragiten ez bazaio.

12.3.4.- Udal agintariak zehaztuko dituzte zamalanak egiteko erreserbatuta egongo diren lekuak. Orobat izango dute horien erabilera eguneko nahiz asteko aldi jakin batzuetara mugatzeko ahalmena.

- Aparkaldi mugatuko esparruetan (TAO), zamalanak egiteko erreserbatutako eremuak ezarri ahal izango dira, ordutegi jakinekin. Zamalanak egiteko finkatzen den ordutegitik kanpo, edozein ibilgailu aparkatu ahal izango da eremu horietan, Aparkaldi Mugatuko Zerbitzua (TAO) arautzeko Ordenantzan ezarritakoa aintzat hartzen delarik.
- Udal agintariak hala erabakitzen duten bide eta eremuetan espazio erreserbak mugatu ahal izango dira —behar bezala seinaleztatzen direlarik—, non egin beharko diren zamalanak ezinbestean, ordu jakin batzuetan, gehieneko denboratarte bat baliatuz, eta non nahitaezkoa izango den ordu-egiaztagiria jartzea edo gaitze agiria eskuratzea, eta zein ezingo diren beste ezertarako baliatu. Alkatearen dekretua dela medio mugatu, aldatu nahiz handituko dira espazio horiek.
- Aurreko ataletan adierazitako zer-nolakoak egokitzen ez diren gainerako kaleetan, eskumena duten udal agintariak zehaztuko dituzte zamalanak egiteko berariaz baimentzen diren eremuak, eta behar bezala seinaleztatuko dira

12.3.5.- Ezingo da zamalanik egin oro har gelditzea edo aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan, ezta aipatutako eremu erreserbatuetatik kanpo ere, salbu eta Udaltzaingoak berariaz baimentzen duelarik, inork horretarako eskabidea egin edo 092ra deitu ondoren.

12.3.6.- Zamalanak egiteko eremuetako gehieneko denbora edo aparkaldia mugatu ahal izango dute udal agintariak, behar den seinalea jarritz, eta, bidenabar, ordu-egiaztagiria jartzea edo gaitze agiria eskuratzea galdatu ahal izango dute, kontrol ondorioetarako.

12.3.7.- Zamalanak egiteko erreserbatutako eremuak erabili ahal izateko tasa jakin batzuk ordaintzea galdatu ahal izango dute udal agintariak, hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezartzen diren tarifen ildotik.

12.4.- Ondorengo gaiak buruzko xedapenak eman ahal izango ditu alkateak:

- Zamalanak egiteko erreserbatutako lekuak seinaleztatzea.
- Zamalanak egiteko lekuak mugatzea.
- Hiriko bide jakin batzuetan barrena zirkulatu dezaketen nahiz horietan utzi daitezkeen ibilgailuen pisu-neurriak nahiz bestelako ezaugarri teknikoak mugatzea.
- Zamalanak egitea baimenduta egongo den orduak, hiriko bide eta auzo desberdinek bere-bere dituzten arazoak direla eta, eta, behar izanez gero, dena delako tasa ordainduz gaitze agiria eskuratzeko obligazioa.
- Salgaiak kargatu eta uzteko berariaz jarritako lekuetan gehienez ere egin daitezkeen egonaldia.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

- Zamalanak egiteko zerbitzu bereziak, egun, ordu eta lekuak adierazten direlarik.
- Baimen bereziak:
 - 12 tona edo gehiagoko kamioentzat.
 - Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.
 - Besterentzat.

12.5.- 12 tona edo gehiagoko garraio-kamioiek honako leku hauetan bakarrik hustu ahal izango dute beren zama:

- Merkataritza nahiz industria lokalen barruan, baldin eta horretarako baldintza egokiak badituzte, eta alde zuzenetik baimendutako ibilbideak baliatuz.
- Aurreko atalean adierazitako eran egitea ezinezko den kasuetan, baimen berezia beharko da.

12.6.- Zamalanetan erabilitako salgai, material edo bestelakoak ezingo dira bide publikoan utzi, baizik eta zuzenean eraman beharko dira higiezinetik ibilgailura eta alderantziz, salbuespen-kasuetan izan ezik. Halakoetan, berariazko baimena eskuratu beharko da, baita bide publikoa okupatzeko behar den lizentzia ere, kontuan harturik, edonola ere, Bide publikoan egiten diren obrak arautu eta balizatzeari buruzko ordenantzan zehaztutako baldintzak.

12.7.- Zamalanak behar adinako konturekin egin beharko dira, beharrik gabeko zaratarik ez ateratzearen, eta berekin ekarriko dute bide publikoa garbi uzteko obligazioa.

12.8.- Espaloitik hurbilen dagoen ibilgailuaren aldetik kargatu eta hustu beharko dira salgaiak, behar diren baliabideak erabiliz, baita aski jende ere, lanak albatz bizkorren egiteko, eta oinezko nahiz ibilgailuen zirkulazioa ez zailtzen saiatuz.

Oinezko nahiz ibilgailuentzat nolabaiteko arriskurik izanez gero zamalanak egiten diren bitartean, behar bezala seinaleztatu beharko da.

12.9.- Aski jende erabiliz egin beharko dira zamalanak, albatz azkarren bukatzearen. Horretarako baimendutako gehieneko denbora, oro har, 30 minutukoa izango da, hain zuzen ere, berariazko seinaleztapena dagoenean izan ezik. Salbuespen gisa, denbora-tarte handiagorako baimena eman ahal izango da, alde zuzenetik behar bezala arrazoitutako eskabidea egiten bada.

13. artikulua: Erreserbatutako bideak

Bide jakin batzuk zenbait motatako ibilgailuek bakarrik erabiltzeko erreserbatu ahal izango dituzte udal agintariak.

14. artikulua: Abiadura

14.1. Hirigunean baimenduta egongo diren gehieneko abiadurak, bestelako seinaleztapenik ezean gaintu ezingo direnak, honako hauek dira:

- hiriko kale eta zeharbideetan, 50 km orduko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

- bide bakarreko eta zirkulazio noranzko bakarreko hiriko kaleetan eta zirkulazio noranzko bakoitzeko bide bana duten kaleetan, 30 km orduko.
- galtzada eta espaloiak plataforma bakarra osatzen duten hiriko kaleetan, 20 km orduko.

14.2.- Oinezkoen alderdietan, zenbait ibilgailuren zirkulazioa baimenduta dagoenean, baita espaloirik gabeko galtzadetan eta oinezkoen joan-etorria handia den bestelako lekuetan ere, gidariek moteldu egin beharko dute abiadura, oinezkoen ibilera normalera egokitzeko, baita, behar izanez gero, gelditu ere, eta behar den arreta guztia jarri beharko dute istripurik gerta ez dadin.

14.3.- Era berean, behar adinako arreta jarri beharko da istripuak galarazteko eta oinezkoei enbarazurik ez egiteko zoladura egoera txarrean dagoenean, galtzada estutu egiten denean, obrak daudenean, eguraldi txarra egiten duenean eta abar.

15. artikulua: Zirkulazioa

15.1.- Gidariek ezingo dute zaratarik egin seinale akustikoak behar ez bezala baliatuz, azelerazio zakarrak eginez, ihes-tutu hondatu edo narriatuak erabiliz, edo bestelako irregulartasunen bat dela medio.

15.2.- Ibilgailu gidari guztiek, bizikleta, ziklo, ziklomotor eta motozikleten gidariak barne, indarrean dauden zirkulazio eta seinaleztapen arauen jakitun izan beharko dute, baita horiei eta agentarien agenteek agindutakoei kasu egin ere.

15.3.- Debekatuta egongo da ikusteko traba egin, oreka galarazi edo gidatzea zaildu lezakeen zamarik garraiatzea.

15.4.- Esku-gurdiek espaloietan nahiz oinezkoen alderdietan barrena zirkulatuko dute, baldin eta beren neurriek horretarako aukerarik ematen badute, oinezkoei enbarazurik egin gabe. Hala ez bada, galtzadan barrena egin beharko dute, eskuineko ertzetik al bait gertuen eta uneoro kaleetako seinaleak errespetatuz.

15.5.- Gehieneko abiadura orduko 30 km-koa dela berariaz seinaleztatzen den bideetan, baita indarrean dagoen legediaren arabera abiadura muga hain zuzen horixe den bideetan ere, bizikleta eta zikloen abiadurara moldatu beharko dute ibilgailu motordunek, galarazita egongo baita bizikletei, zikloei eta mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuei zirkulazio bide beretik joaki aurrea hartzea, baita ibilgailu motordunen gidariak haien gidariei jazartzea ere.

15.6.- Ibilgailu motordunen gidariek, ziklista bati aurrea hartu nahi diotelarik, arreta berezia jarri beharko dute, eta kontu berezia eduki: alboko zirkulazio bidera aldatu beharko dute, eta gutxienez 1,5 metro utzi bizikletaren eta gidatzen duten ibilgailu motordunaren artean, haren segurtasuna bermatzeko. Era berean, bizikletaren atzetik zirkulatzen dutenean, zuhurtziazko segurtasun tartea utzi beharko dute, daramaten abiaduraren arabera.

16. artikulua: Zirkulatzeko eta ibilgailua uzteko baimen bereziak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Udal agintariak halako pisu edo neurri batetik gorako ibilgailuen zirkulazioa edo uzteak mugatu ahal izango dituzte leku edo ordu jakinetan. Halako ibilgailuek ezingo dute hiriko bide publikoetan barrena zirkulatu berariazko udal baimenik gabe —bidaia bakarrerako nahiz denbora-tarte jakin baterako eman ahal izango baita—.

17. artikulua: Lineaz kanpoko garraioa

17.1.- Bederatzi lagun baino gehiagorentzako lekua duten ibilgailuekin —gidaria barne dela— lineaz kanpoko garraio zerbitzua eskaintzekotan, eta abialekua hirian izanez gero, udal baimena eskuratu beharko da.

17.2.- Zerbitzuaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek eskatu beharko dute udal baimena, eta indarrean den legediak eskatzen dituen agiriak, proposatutako ibilbidea eta egingo diren geldialdiak erantsi beharko dizkiete eskabideari.

17.3.- Bertan adierazten den epean bakarrik izango du indarra baimenak, eta berriro eskatu beharko da baldin eta aurrekoa eman zeneko zer-nolakoetan edonolako aldakuntza gertatu bada.

17.4.- Ezingo da lineaz kanpoko garraioaren geltokietan bidaiariak jaso nahiz uzteko beharrezko den baino denbora luzeagoan egon.

18. artikulua: Bide publikoetan debekatuta egongo diren erabilerak

18.1.- Galarazita egongo dira bide publikoetan erabiltzaileentzat nahiz hartan dihardutenentzat arrisku edo enbarazurik ekar lezaketen jarduerak oro.

18.2.- Aldez aurretik udal baimena eskuratu beharra izango da jende talde edo multzorik sor lezaketen jarduera eta deialdietarako, oinezko nahiz ibilgailuen joan-etorria oztopa balezakete. Halako ekitaldietarako baimenak besterik gabe utzi ahal izango dituzte bertan behera agintarien agenteek, deialdiari erantzun diotenei nahiz besteri enbarazu larririk egin nahiz arriskurik sortuz gero.

18.3.- Edozein areto edo zerbitzutara sartzeko ilarak modu ordenatuan eratu beharko dira, banan-banako ilaran, higiezinaren fatxaden ondoan, galtzada hartu gabe eta etxebizitza nahiz dendetarako sarrerak libre uzten direlarik. Ilara sortzen duen jardueraren arduradunek beharrezko den ordena-zerbitzua jarri beharko dute istilurik sor ez dadin eta kalearen erabiltzaileei enbarazurik egin ez dakien.

18.4.- Debekatua izango dute hirigunean barrena zirkulatzea salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek; hortaz, hiria inguratzen duten saihebidetarako erabili beharko dituzte.

Salbuespen gisa, hirigunean sartzen utziko zaie halako ibilgailuei behar-beharrezko baldin bada ondorengo arrazoietakoren batengatik, eta beti ere horretarako eta ez bestetarako egiten denean, eta arlo horretan indarrean dagoen araudian xedatutako eran eta hartan ezarritako baldintzak betetzen direlarik:

- Salgaiak hartu eta uzteko nahiz halakoak banatzeko lanak egiteko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

- Behar bezala arrazoitutako munta handiko arrazoiren bat tartean denean.

19. artikulua: Zaintza Bereziko Kaleak edo zirkulazio intentsitate handikoak

19.1.- Zaintza Bereziko Kale izendatu ahal izango ditu alkateak zenbait kale, lehentasunekotzat edo zirkulazio intentsitate handikotzat jotzen badira, horietan bigarren ilaran gelditzea debekatzeko, salbu eta gaixoak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak hartu edo uzteko bada zein larrialdietarako edo segurtasunerako zerbitzuak badira.

19.2.- Zaintza Bereziko Kaleak informazio seinale bertikalak jarriz identifikatuko dira. Kale horien seinaleztapen horizontal gisa, berriz, marra gorriak margotuko dira galtzada-alboetan.

III. KAPITULUA: BIZIKLETA, ZIKLO, IRRISTAILU ETA ANTZEKOEKIN ZIRKULATZEA

20. artikulua: Kapituluaren xedea

Bizikleta, ziklo, irristailu eta antzekoen zirkulazioari buruzko arau nagusiak ematea da kapitulu honen xedea. Titulu honetan arautzen ez diren alderdiei dagokienez, ibilgailu motordunei buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

21. artikulua: Bizikletentzako bideetatik zirkulatzea

21.1.- Bizikletekin, 0,9 m-tik beherako zabalera duten zikloekin —mugikortasun murriztua dutenek gidatuak barne—, motorrik gabeko irristailuekin eta antzekoekin zirkulatzeko baliatu ahal izango dira ibilgailu motordunen trafikotik bereizita dauden bizikletentzako bideak —bizikleta-bide babestu, bizikleta-espalo, bizikleta-pista eta ziklo-bidexkak. Bide horien erabiltzaileek neurrizko abiadura eraman beharko dute, eta behar den arreta eta kontua eduki, bertatik zirkulatu bitartean.

21.1.1.- Espaloietan nahiz oinezkoen alderdietan taxutzen diren bizikletentzako bideetan barrena zirkulatzeko, bizikletek eta haietan barrena zirkulatzeko baimenduta dauden gainerako ibilgailuek arretaz egin beharko dute, oinezkoen bat —bereziki, haurren bat edo dibertsitate funtzionala duen pertsonaren bat— bidera sartzen bazaie ere. Txirrindulariak neurrizko abiadura eraman beharko du, eta oinezkoen lehentasuna errespetatu, seinaleztatutako bidegurutzeetan.

21.1.2.- Dibertsitate funtzionala dutenen aulki eta trizikloek trafikotik bereizita dauden bizikletentzako bideetan barrena zirkulatu ahal izango dute.

21.2.- Ibilgailu motordunen trafikotik bereizi gabeko bizikletentzako bideak —babestu gabeko bizikleta-bideak— bizikleta eta ziklo pedaldun nahiz pedalik gabeek bakarrik erabili ahal izango dituzte, eta motorrik gabeko irristailuek, baldin eta irristalariak adinez nagusiak badira edo, adingabeak izanik ere, adineko batekin badoaz. Horretarako, irristalariak kasko



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

homologatuarekin behar bezala babestuta joan beharko dute, eta elementu islatzailez hornituta, ongi ikusiak izan daitezten, eta, ikuspen gutxiko egoeretan, posizioko argiekin.

21.3.- Ziklistentzako nolabaiteko bidea badagoen kaleetan, bizikletek eta 0,9 metrotik beherako bestelako zikloek aukeran hartatik zirkulatu beharko dute, galtzadatik ere joaterik izango duten arren.

22. artikulua: Galtzadatik zirkulatzea

22.1.- Bizikleta eta zikloek galtzadatik zirkulatzeko dutenean, hirigunean, aukeran eskuineko bidetik egin beharko dute, eta bidearen erdialdea okupatu ahal izango dute. Kalearen ezaugarriek edo bideko marrek hala adierazten dutenean zirkulatu ahal izango dute beste bidetik, eta helmugara iristeko beharrezko dutenean.

22.2. Bizikletak modu seguruan kokatu eta abian jartzeko duten arintasuna aprobetxatze aldera, semaforoetan gelditzeko marraren ondoan bizikletak jartzeko gunek seinalatzatu bat jar daiteke.

22.3.- Bizikletak semaforoetan gelditu daudenean galtzadan modu seguruan kokatu daitezten, galtzadan gelditu dauden ibilgailuen aurretik jarri ahal dira, baldin eta horien artetik aurrera egiteko nahikoa toki badago, aurrerago eta seguruago den gunek batean jarri arte, edo semaforoetan berariaz bizikletak gelditzeko seinalatzatu diren gunetara joateko.

22.4.- Debekatuta dago bizikleta eta zikloek garraio publikorako erreserbatutako bidean barrena zirkulatzea. Nolanahi ere, udalak, behar den seinalatzapena dela medio, garraio publikorako —autobusak eta tranbia— erreserbatutako bidean barrena zirkulatzeko baimena eman ahal izango die bizikleta eta zikloei. Horrelako bideetan, bizikleta eta zikloek erraztu egin beharko dute gainerako ibilgailuek aurrea hartzea, baldin eta segurtasun-egoeran posible bada,

22.5.- Abiadura orduko 30 km edo gutxiagora mugatuta duten kaleetan, udal agintariak bizikleten eta zikloen zirkulazioa baimendu ahal izango dute kontrako noranzkoan, dagokion seinalatzapena baliatuz adierazten dutelarik.

22.6.- Bizikleten zirkulazioa baimenduta egongo da binako zutabe paraleloetan.

22.7.- Debekatuta dago monopatin, patin eta antzekoek galtzadan barrena zirkulatzea.

23. artikulua: Oinezkoen alderdietatik —espalo, ibiltoki, plaza eta oinezkoentzako bestelako lekuetatik— zirkulatzea

23.1.- Arau orokor gisa, debekatuta egongo da ziklo eta bizikletekin oinezkoen alderdietan barrena zirkulatzea. Nolanahi ere, salbuespen gisa, kasu hauetan baimenduta egongo da:

- Oinezkoen zenbait alderditan, ordu-tarte jakinetan. Alkatearen dekretua dela medio finkatuko da alderdi horien zerrenda, segurtasuna, oinezkoen mugikortasunarekiko bateragarritasuna eta espazio publikoaren egokitasuna aintzat harturik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

- Espazio horietatik kanpo, oztoporik gabeko 3 metrotik gorako zabalera duten oinezkoen gainerako espazioetan barrena, salbu eta bertan ziklistentzako bide bat badago, zirkulazio abiadura orduko 30 km edo gutxiagora mugatuta badago edo Zirkulazio Araudi Orokorraren 159. artikuluan araututako seinalearen bitartez egoitza-kale gisa seinaleztatuta badago.
- Ziklista 14 urtetik beherakoa denean. Halakoetan, nagusi batek edo gehiagok joan ahal izango dute adingabearekin batera.
- Zikloa gidatzen duena mugikortasun murriztua duen pertsona bat denean. Halakoetan, pertsona batek edo gehiagok joan ahal izango dute mugikortasun murriztua duen pertsonarekin batera.

Nolanahi ere, oinezkoen espazioetan barrena zirkulatzeko baimena baldintzatuta egongo da, ikusi beharko baita oinezkoen dentsitateak aukera ematen dion ziklistari haien lehentasuna errespetatzeko, eta posible den bizikletaz zirkulatzea iskintxo edo maniobra zakarrik egin gabe.

23.1.1.- Ziklo eta bizikletekin espaloi eta oinezkoen alderdietan barrena zirkulatzen denean, arreta berezia jarriz egin beharko da, oinezkoen lehentasuna errespetatzen delarik, eta haiei aurrea hartzeko edo bidean aurrera egiteko sigi-saga ibili gabe. Edonola ere, espazio horietan ziklo edo bizikletaz doazenek oinezkoen lehentasuna errespetatu beharko dute beti, abiadura haienera moldatu eta haien segurtasuna arriskuan jarri edo enbarazua sortuko liekeen maniobrarik egin gabe. Gutxienez metro bateko distantzia gorde beharko dute oinezkoei aurrea hartu edo haiekin gurutzatzean. Hori ezinezkoa bada, jaitsi egin beharko du bizikletatik.

23.1.2.- Ziklistek eraikinak dauden espaloi edo oinezkoen alderdietatik zirkulatzen dutelarik, beren eta haien fatxaden artean gutxienez metro eta erdiko tarte utzi egin beharko dute.

23.2.- Monopatinek, motorrik gabeko irristailuek eta antzekoek oinezkoen abiaduran zirkulatu ahal izango dute espaloi eta oinezkoen alderdietatik.

24. artikulua: Bidaiariak eta zama garraiatzea eta publizitate zikloak.

24.1.- Bizikleta eta zikloetan zama eta bidaiariak eraman ahal izango dira, gidaria adinez nagusia bada. Pertsona bakar batentzat egindako bizikleta eta zikloetan, gidaria adinez nagusia bada, zazpi urtera arteko haur bat ere eraman ahal izango da; beti ere, homologatutako jarleku osagarri batean.

24.2.- Pertsonak eta zama garraiatzen delarik, edo publizitate zikloak baliatzen, saihestu beharko da:

- herrestan eramatea, osorik nahiz zati bat erortzea eta modu arriskutsuan mugitzea.
- ibilgailuaren egonkortasuna arriskuan jartzea.
- argi edo seinaleztapen gailuak ezkatzea.

24.3.- Behar bezala homologatutako atoiak, erdi-atoiak eta bestelako elementuak erabili ahal izango dira bizikletekin, pertsonak nahiz zama garraiatzeko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

24.4.- Alkatearen dekretua dela medio arautu ahal izango du udalak ziklo eta bizikleten bidezko bidaiari-garraioa.

IV. KAPITULUA: MOTOZIKLETA ETA ZIKLOMOTORREN ZIRKULAZIOA

25. artikulua: Kapituluaren xedea

Motozikleta eta ziklomotorrak ibilgailu motordun arinak eta zaluak dira bide publikoetako zirkulazioan, eta, horrenbestez, trafikoaren mugikortasuna eta arintasuna hobetzen laguntzen dute. Hori dela eta, ordenantzan kapitulu bereizi bat eskaintzen zaie, lau gurpileko ibilgailuen aldean horien erabilerari lehentasuna emate aldera.

25.1.- Hiriko trafikoaren arintasuna hobetze aldera, motozikleta eta ziklomotorrek garraio publikorako erreserbatutako bidetik zirkulatzea baimendu ahal izango du udalak, baldin eta dena delako zona edo kaleko trafikoaren hobekuntza nabarmena ekarriko badu horrek. Une jakinetan ezarri ahal izango da neurri hori, ospakizunen batek dirauen bitartean edo trafikoari eragiten dioten obren edo bestelako gertakarien ondoriozko behin-behineko neurri gisa, baita modu iraunkorrean ere, zerbitzu teknikoek egokitzat jotzen dutelarik, beti ere argi uzten delarik larrialdi zerbitzuek, autobusek eta taxiek lehentasuna dutela bide horietan. Hortaz, behar bezala seinalaztatuko dira.

25.2.- Zirkulazioaren noranzko berean hainbat bide dauden eta trafiko intentsitaterik handiena duten kaleetan, semaforoetan gelditzeko marraren ondoan eremu seinalaztatu bat egokitu ahal izango da motozikleta eta ziklomotorrek bertan jartzerik izan dezaten, modu seguruan, eta hartara, beren bizkortasun handiagoa baliatuz abian jartzen direlarik, trafikoaren arintasuna hobetzen lagundu dezaten.

25.3.- Motorzaleak semaforoetan geldi daudenean galtzadan modu seguruan kokatu daitezten, galtzadan geldi dauden ibilgailuen aurretik jarri ahalko dira, baldin eta horien artetik aurrera egiteko nahikoa toki badago, aurrerago eta seguruago den gune batean jarri arte, edo semaforoetan berariaz halakoak gelditzeko seinalaztatu diren eremuetara joateko.

25.4.- Motozikleta eta ziklomotor gidarien segurtasuna helburu —bereziki zorua bustita dagoenean—, udalak konpromisoa hartzen du besteak beste neurri hauek ezartzeko:

- Pintura ez-labaingarriak erabiltzea seinalaztapen horizontalean, bereziki oinezkoentzako pasabideetan.
- Pinturarik gabeko igarobideak uztea oinezkoentzako pasabideetan, itsaspen-galerak eragozteko, eta, orobat, irristatuz edo *aquaplaning* eginez ibilgailuen kontrola galtzea.

Urbanizazio berrietako obretan nahiz kaleak eraberritzen direnean, neurri hauek aplikatuko dira:

- Irlatxo edo biribilguneetako zintarriak kendu egingo dira, edo gaineratik igarotzeko modukoak jarriko.
- Motorzaleentzat seguru diren xafla izurtu homologatuak jarriko dira.
- Motorzaleentzat seguru diren euskarri homologatuekin jarriko dira seinale bertikalak, bestelakorik jartzea motor eta ziklomotor gidarientzat arriskutsu izan daitekeen lekuetan.

Aurrekoa gorabehera, bestelako neurririk ere hartu ahal izango da, helburu berarekin.



II. TITULUA: APLIKAGARRIAK

I. KAPITULUA: ARAU-HAUSTEAK ETA HORIEN MAILAKETA

26. artikulua: Arau-hauste kontzeptu orokorra

Ordenantza honetan jasotzen diren arauen kontrako egintzak edo ez betetzeak —baita martxoaren 2ko 339/1990 LEDren eta haren erregelamendu-xedapenen kontrakoak ere— arau-haustetzat joko dira, eta bertan jasotzen diren kasuetan, moduan eta neurriekin zigortuko dira, salbu eta zigor-legeetan jasotzen diren delituak edo urraketak izan badaitezke, gertutakoaren lekukotasuna jurisdikzio ordena eskudunari igorriko baitio administrazioak kasu horretan, eta ez du prozedura zigortzailearekin jarraituko agintari judizialek epai irmoa ematen ez duten bitartean.

27. artikulua: Tipifikazioa

Bereziki, eranskin gisa ageri den katalogoan tipifikatutako portaerak joko dira ordenantza honekiko arau-haustetzat, trafikoari eta zirkulazioari, baita bide publikoen erabilerari eta horietako segurtasunari ere, eragiten dieten aldetik.

II. KAPITULUA: EZARRI AHAL IZANGO DIREN ZIGORRAK

28. artikulua: Arau-hausteak eta zigorrak

Ordenantza honetan aipatzen diren aginduen eta legedi arrunteko trafiko alorrekoen kontrako arau-hausteak honela sailkatuko dira: arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak.

1.- Arau-hauste arinak 100 euro arteko isunarekin zigortuko dira:

Ordenantza honetan berariaz larritzat edo oso larritzat jotzen ez direnak izango dira arau-hauste arinak.

2.- Arau-hauste larriak 200 euroko isunarekin zigortuko dira.

Ordenantza honetan horrela tipifikatzen direnak izango dira arau-hauste larriak, edo, bestela, martxoaren 2ko 339/1990 LEDko 65.4. artikuluan halakotzat jotzen direnak.

Arau-hauste oso larriak 500 euroko isunarekin zigortuko dira. Nolanahi ere, abiadura mugak ez errespetatzearekin zerikusia duten arau-hausteak azaroaren 23ko 18/2009 Legearen IV. eranskinean aurreikusten diren isunekin zigortuko dira.

3.- Arau-hauste oso larriak izango dira, ordenantza honetan horrela tipifikatuta azaltzen direnez gain, ondorengo arau-hauste hauek:

a) Larritzat sailkatutako jokabideak, baldin eta arriskua areagotzen zuen egoera jakinen bat agerikoa bazen arau-haustea gertatu den unean, zirkulazioaren intentsitateagatik, bidearen ezaugarriengatik eta egoeragatik, eguraldi-gorabeherengatik edo ikusgarritasun-egoeragatik, ibilgailuen eta bestelako erabiltzaileen pilaketagatik —bereziki hirigune eta herrietan— nahiz antzeko beste edozein zirkunstantziagatik.

b) Premiazko beharra edo istripu larria gertatzen denean laguntzarik ez ematea.

c) Martxoaren 2ko 339/1990 LEDko 65.5. artikuluan horrela tipifikatuta daudenak.



4. Lehendik xedatutakoa gorabehera, honako hau izan beharko da kontuan zigorrak jartzean:

- a) 65.5 j) artikuluan aurreikusten den arau-hausteagatiko isuna jatorrizko arau-hausteari zegokion isunaren bikoitza izango da arau-haustea arina bada, eta hirukoitza, aldiz, arau-haustea larria edo oso larria bada.
- b) 65.5 h) artikuluan adierazten den arau-haustea 6.000 euroko isunarekin zigortuko da.
- c) 65.6 artikuluan adierazten diren arau-haustea 3.000 eurotik 20.000ra bitarteko isunarekin zigortuko dira.

28.1. Erantzukizuna

Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrako arau-hausteen erantzukizuna arau-haustea berekin dakarren egintzaren egileari dagokio, zuzenean. Hemezortzi urtetik beherako adingabe baten egintzen erantzukizuna deklaratzeko delarik, modu solidarioan erantzungo dute, harekin batera eta hurrenkera horretan: gurasoek, tutoreek, hartzaileek eta legezko nahiz izatezko zaintzaileek. Halakoetan, isuna ordaindu beharra besterik ez du ekarriko berekin erantzukizun solidarioak, eta zigorra jartzeko eskumena duen agintariak hura apaltzerik izango du.

Nolanahi ere, ibilgailuaren titularra izango da dokumentazioari, ibilgailuaren segurtasun baldintzei eta aldizkako azterketei buruzko arauak ez betetzei buruzko arau-hausteen erantzulea.

Ibilgailuaren titularrak, hala galdatzen zaiolarik, arau-haustearen erantzule den gidaria identifikatzeko obligazioa izango du, eta arrazoi justifikaturik gabe uko egiten badiu, prozedura-izapideen baitan, betebeharrak hori betetzei, diru-zigorra jarriko zaio, hutsegite oso larriaren egile gisa.

Era berean, ibilgailuaren titularra izango da erantzule baldin eta, berari egotz dakioken arrazoiren batengatik, identifikatzen duen gidariari salaketa helaraztea ezinezko gertatzen bada.

Gidariari jarritako isuna ordaintzen ez bada, arau-haustea egitean erabilitako ibilgailuaren titularra erantzule subsidiarioa izango da, honelakoetan izan ezik:

- a) Ibilgailua lapurtu edo ostu badiote, edo bere borondatearen kontra erabili dela argi erakusten duen bestelako erabilerarik izan badu.
- b) Titularra ibilgailuak gidaririk gabe errentan uzteko enpresa bat bada.
- c) Arau-haustea egiten den unean ibilgailuak epe luzerako errentari bat izendatua badu. Kasu horretan, hari egotziko zaio erantzukizuna.
- d) Arau-haustea egiten den unean ibilgailuak ohiko gidari bat izendatua badu. Kasu horretan, hari egotziko zaio erantzukizuna.

III. TITULUA: KAUTELAZKO NEURRIAK

I. KAPITULUA: IBILGAILUAK GELDI ATXIKITZEA

29. artikulua: Ibilgailuak gelditu atxikitzea

29.1. Indarrean dagoen araudiaren kontrako ustezko arau-haustea direla eta, trafikoa zaintzeko ardura duten agintarien agenteek ibilgailua gelditu atxiki ahal izango dute, honako hauetan:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

- a) Ibilgailuak zirkulatzeko administrazio baimenik ez badu, dela eskuratu ez delako, dela deuseztatu egin delako edo indarraldia amaitutzat jo delako.
 - b) Ibilgailuak errepideko segurtasunerako arrisku bereziki larria dakarten akatsak ageri baditu.
 - c) Gidariak edo bidaiariak babes-kaskoa ez badarama, nahitaezkoa izanik.
 - d) Alkohol eta droga probak —legez ezarrita daudenak— egiteari uko egin bazaio, edo emaitza positiboa ematen badute.
 - e) Ibilgailuak nahitaezko aseguruia ez badauka.
 - f) Ikusten bada gidatzen emandako denbora arauz ezarritako gehienekoa baino ehuneko 50 handiagoa izan dela, edo atsedena hartzeko denbora hein berean behar baino txikiagoa, salbu eta gidari bat baino gehiago txandakatu direnean.
 - g) Ibilgailuaren neurritz gaineko okupazioa atzematen bada; zehazki, gidariak aparte baimenduta dauden bidaiariak baino ehuneko 50 gehiago hartu direla.
 - h) Ibilgailuak arauz baimenduta dauden gas, ke eta zarata mailak gainditzen baditu, zer ibilgailu mota den kontuan izanik.
 - i) Kontrol tresnak manipulatu bide direla agerian uzten duten arrazoizko zantzuak badaude.
 - j) Ibilgailuak trafiko agenteen zaintza eta irudi bidezko kontrol neurriak saihesteko mekanismoak edo sistemak jarrita dituela atzematen bada.
 - k) Gidariak mota horretako ibilgailuak gidatzeko gaitzen duen administrazio baimenik ez duela uste izateko arrazoirik badago.
 - l) Trafiko arau-haustea salatzen delarik salatuak ez badu ez ohiko bizilekua espainiar lurraldean duela egiaztatzen, ez isunaren behin-behineko zenbatekoa gordailu utzi edo ordainketa bermatzen.
 - m) Trafiko araudian hala zehazten den kasu guztietan.
Atxikitzea ekarri zuen arrazoa desagertzen delarik eta dena delako ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaintzen direlarik garatuko da aske ibilgailua.
1. ataleko h), i) eta j) paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, honelakoetan bakarrik utziko da aske atxikitako ibilgailua: agintarien agenteek adierazitako lantegi batera eramaten delarik, hark egiaztatzen duenean atzemandako sistema edo manipulazioa desagertu dela edo jadanik baimendutako mailak gainditzen ez direla.

29.2. 1. e) paragrafoan adierazitako kasuan, urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Bideko Zirkulazioko Erantzukizun Zibilar eta Aseguruari buruzko Legearen testu bateginean jasotakoaren arabera jokatu da.

29.3. Agintarien agenteek adierazten duten tokian gelditu atxikiko da. Horretarako, adierazten dion lekuraino zirkulatzeko jarraitzeko aginduko dio agenteak gidariari.

29.4. Ibilgailua gelditu atxikitzearen ondorioz sortzen diren gastuak arau-haustea egin duen gidariaren kontura joango dira. Gidariak ezean, berriz, ohiko gidariaren edo errentariaren kontura, eta, halakorik ezean, titularraren kontura. Ibilgailua gelditu atxikitzearen neurria bertan behera utzi aurretik ordaindu beharko dira gastu horiek, defentsa eskubidea gorabehera, eta orobat izango da aukera gastu horiek, gerora, administrazioa neurri hori hartzera eraman zuen arau-haustearen erantzuleari egozteko.

1. h), i) eta j) paragrafoetan adierazitako kasuetan ikuskapenaren gastuak salatuaren kontura joango dira, arau-haustea frogatzen bada.

29.5. Ibilgailua errentan hartua bada, hura erabiltzea debekatuko zaio arau-hausteari, gelditu atxiki ordez.

II. KAPITULUA: IBILGAILUAK KALETIK KENTZEA



30. artikulua: Ibilgailuak bide publikotik kentzea

1. Trafikoa kudeatzeko ardura duten agintariek ibilgailua kaletik kendu eta horretarako egokitutako biltegian gorde ahal izango dute, behartuta dagoenak egiten ez badu —edo bertan ez badago, egin ahal izateko—, honako kasu hauetan:

a. Arriskua sortzen badu, ibilgailuen nahiz oinezkoen zirkulazioari enbarazu larria egiten badio edo zerbitzu nahiz ondasun publikoren bat hondatzen badu.

b. Aurrera jarraitzea galarazten dion istripua izan badu.

c. Legez ibilgailua gelditu beharra gertatzen delarik, ibilgailuen nahiz pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe egiteko leku egokirik ez badago.

d. Ibilgailua 29. artikuluan xedatutakoaren arabera gelditu atxikitzen delarik, gelditu atxikitze hori ekarri zuten zioak desagertzen ez badira.

e. Ibilgailua udal agintariek mugikortasun murriztua duten pertsonen erreserbatutako tokian aparkatuta badago, horretarako baimena ematen duen txartela eduki gabe.

f. Ibilgailua erabilteko jakin batzuen eta ez besteren zirkulazio edo zerbitzurako erreserbatutako bide edo bide-zatietan badago, edo zama-lanak egiteko erreserbatutako lekuan.

g. Ibilgailua udal agintariek denbora mugatuko aparkaleku gisa gaitutako lekuren batean aparkatuta badago, horretarako baimena ematen duen txartela jarri gabe, edo udal ordenantzan ezarritakoaren arabera ordaindu den denbora halako hiru emana badu bertan.

2. Salbu eta ibilgailua lapurtu egin bada edo, beste edozein modutan, titularraren borondatearen kontra erabili —eta hala egiaztatzen bada—, ibilgailua kaletik kentzeak sortutako gastuak titularraren, errentariaren edo ohiko gidariaren kontura izango dira, kasuan kasu, eta ibilgailua bihurtu aurreko betebeharra izango da horiek ordaintzea, errekurtsio aurkezteko eskubidea eta gastu horiek ibilgailua kaletik kentzea ekarri duen istripuaren, bertan behera uztearen edo arau-haustearen erantzuleari egozteko aukera gorabehera.

3. Administrazioak legez ezarritako epean jakinarazi beharko dio titularrari ibilgailua kaletik kendu eta biltegiara eraman dela. Trafiko gaietarako helbide elektronikoaren bitartez gauzatuko da jakinarazpen hori, titularrak halakorik badu.

31. artikulua: Ibilgailua hondakin gisa tratatzea

Trafikoa kudeatzeko eskumena duen administrazioak ibilgailua Ibilgailuak Tratatzeko Zentro Baimendu batera eramateko agindu ahal izango du, bertan deskontaminatu eta suntsitu dezaten:

a. Ibilgailua gelditu atxiki edo kaletik kendu eta biltegian gorde zenetik bi hilabete baino gehiago igaro direlarik titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu.

b. Ibilgailuak leku berean aparkatuta hilabetetik gora egiten badu eta leku batetik bestera berez mugitzea ezinezko egiten duten kalteak baditu edo matrikula-xaflak falta baditu.

c. Ibilgailu bat matxura edo istripuaren ondorioz barruti pribatu batean gordetzen delarik, titularrak bi hilabete epean jasotzen ez badu.

Ibilgailua eramateko agindua eman aurretik, titularrari galdatuko dio administrazioak berak egin dezala, bidenabar ohartaraziz hilabete epean erretiratzen ez badu Ibilgailuak Tratatzeko Zentro Baimendu batera eramango dela.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

2. 1.c atalean aurreikusitako kasuan, leku edo barrutiaren jabe edo arduradunak Probintziako Trafiko Buruzagitzari eskatu beharko dio baimena ibilgailua hondakin gisa tratatzeko. Horretarako, titularrari ibilgailua bere barrutitik kentzeko eskatu diola egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

3. Komenigarritzat jotzen den kasuetan, alkateak edo ordezkari izaki eskumena duen agintariak erabaki ahal izango du ibilgailua suntsitu ordez trafikoa zaindu eta kontrolatzeko zerbitzuei esleitzea, zeini dagokion esparruan.

32. artikulua: Ibilgailua ondare publikoan galera edo hondamena sortzeko moduan uztea

Ibilgailua ondare publikoan galera edo hondamena sortzeko moduan utzitakotzat joko da baldin eta lorategi, hesi, arboladi, parke nahiz hiria apaintzeko den bideko beste lekuren batean utzi bada.

33. artikulua: Ibilgailuak kaletik kentzeko bestelako arrazoiak

Ondorengo kasu hauetan ere kendu ahal izango dira ibilgailuak bide publikotik, nahiz eta arau-hausterik ez izan, ezta ordaintzeko beharrik ere:

- Ibilgailua aldeztatik behar bezala baimendutako ekitaldi publiko batek hartu beharreko lekuan utzia dagoenean.
- Bide publikoa garbitu, konpondu, onik zaindu nahiz seinaleztatzeko beharreko gertatzen denean, baldin eta behar bezala adierazi bada.
- Larrialdi kasuetan, hartarako aski arrazoi dagoenean.

Kasu horietan, eta 5.4. artikuluan xedatutakoa gorabehera, ibilgailuaren titularrari hura bertatik zer dela eta kendu den eta, behar izanez gero, non utzi den jakinarazteko ahaletinak egingo dira.

34. artikulua: Bizikletak eta zikloak kaletik kentzea

34.1.- Eskumena duten agintariak bizikleta edo zikloa kaletik kendu ahal izango dute, behartuta dagoenak egiten ez badu, kasu hauetan:

- Berariaz halakoak uzteko egokitu gabeko lekuren batean badago eta bi egun baino gehiago egin baditu bertan.
- Berariaz horretarako egokitutako leku batean egonik ere, zazpi egun baino gehiago egin baditu bertan.
- Bizikleta, zikloa edo osagaien bat bertan behera utzitakotzat jotzen bada.
- Legez ibilgailua gelditu beharra gertatzen delarik, horretarako leku egokirik ez badago.

34.1.1.- Bertan behera utzitako bizikleta edo ziklotzat joko dira —eskumena duten agintariak horiek kaletik kentzeari dagozkionetarako— bide publikoan gurrupilik gabe edo trakzio mekanikoa hondatuta daudenak eta argi eta garbi bertan behera utzita daudela ageri dutenak.

34.1.2.- Horrelakoetan, udal agintariak ofizioz kenduko dituzte bizikleta eta zikloak kaletik, behar izanez gero estekak askatuz, eta jabearen kontura izango dira horrek sortzen dituen gastuak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

34,2.- Udal biltegira eramango ditu udalak bertan behera utzitako bizikleta eta zikloak. Kaletik kendu zirenetik hiru hilabete igarotzen direlarik, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera jokatu ahal izango du udalak.

35. artikulua: Ibilgailu-kentzea bertan behera uztea

Ibilgailu-kentzea berehalakoan utziko da bertan behera baldin eta gidaria agertzen bada eta ibilgailuaren egoera irregularra konpontzeko beharrezko diren neurriak hartzen baditu. Halakoetan, tasei dagokienez, Zerbitzuak Eskaintzeagatiko Tasak Arautzen dituen Udal Ordenantzan xedatutakoa izango da aplikagarri.

III. KAPITULUA: IBILGAILUAK GELDI ATXIKI, KALETIK KENDU ETA GORDETZE ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEAGATIKO TASAK

36. artikulua: Tasen autolikidaziorako erregimena

Ibilgailuak geldituta atxiki eta kaletik kentze zerbitzua eskaintzearen ondorioz sortutako tasak, baita haiek udal biltegian edukitzetik sortutakoak ere, Zerbitzuak Eskaintzeagatiko Tasak Arautzen dituen Udal Ordenantzan ekitaldi bakoitzerako zehazten direnak izango dira.

Titularrak edo baimendutako pertsonak bakarrik altxatu ahal izango du ibilgailu atxikitzea eta ibilgailua berriro eskuratu, aldez aurretik dagozkion tasak ordainduta, salbu eta ordenantza honen 33. artikuluan —Ibilgailuak kaletik kentzeko bestelako arrazoiak— adierazitako kasuetan.

Ibilgailuak bide publikotik kentzearen ondorioz —dela ordenantza honetan, martxoaren 2ko 339/90 EDan edo haren arautze-xedapenetan aurreikusitako arrazoiengatik, dela agintari judizialek hala xedatu dutelako edo beste administrazio batek eskatu duelako— haiek udal biltegian gordeta geratzen direnean, ekitaldi bakoitzean indarrean den delako ordenantzan kontzeptu horretarako ezarrita dauden tasak sortuko ditu gordetze zerbitzu hori eskaintzeak.

Tasa horiek autolikidazio erregimenaren mende jarriko dira; hain zuzen ere, zerbitzu eskaintzea bukatzen den unean egin beharko da autolikidazioa, eta honako hauek izango dute horiek ordaintzeko obligazioa: zerbitzu eskaintzea eragin duten eta Toki Ogasunen Legean xedatutakoaren arabera subjektu pasibo diren pertsona, erakunde nahiz instituzioek.

IV. TITULUA: PROZEDURA ZIGORTZAILEA

KAPITULU BAKARRA

37. artikulua: Eskumena duten organo instrukzio-egilea eta zigortzailea

Alkate lehendakariak edo hark ordeztuko izendatzen duenak izango du eskumena bai ordenantza honetan, bai trafikaren arloan indarrean dauden bestelako lege-xedapenetan jasotzen diren arauak hausteagatik zigorrak jartzeko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Eskumena duen udal organoak abiaraziko ditu trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren alorreko arau-hausteak direla eta abiarazi beharreko dosierrak.

38. artikulua: Dosierrak eskumena duen administrazioari igortzea

Udaltzainek nahiz Aparkalekuen Kontrolerako Zerbitzuko zaindarien inork hiriko bideetan egindako arau-hausteak salatzen dituztelarik, baldin eta ez badagokio alkate-lehendakariari hura zigortzea, administrazio eskudunari igorriko dizkio instrukzio-egileak.

39. artikulua: Puntuak kentzea

Gidatzeko baimen edo lizentziaren jabeari hasiera batean emandako puntu-kopurua murriztu egingo da zigorra administrazio-bidean irmo bihurtzen delarik, baldin eta puntuak galtzea berekin dakarten arau-hausteak badira, azaroaren 23ko 339/2009 Legearen bitartez aldatu zen 339/1990 LEDren II. eta IV. eranskinen arabera.

40. artikulua: Dosier zigortzailea izapidetzea

Ordenantza honetan xedatutakoa hausteagatik abiarazten diren dosier zigortzaileak martxoaren 2ko 339/90 EDan —azaroaren 23ko 18/2009ak aldatua, zigortze kontuei dagokienean— araututako prozedurari jarraiki izapidetuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzaren IV. Tituluko Arau-hauste eta Zigorren Taula aldatzen duen eranskin honetan xedatu gabekoetan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea onetsi zeneko martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan —azaroaren 23ko 339/2009 Legearen bitartez aldatua— xedatutakoa aplikatuko da.

Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren —azaroaren 23ko 339/2009 Legearen bitartez aldatua— 67.1 artikuluan eta IV. eranskinean ezarritako isunen kopuruak ehuneko 30 handitu ahal izango dira, kontuan harturik gertakariaren larritasuna eta munta, arau-hausteen aurrekariak eta lehendik ere halakorik egin duen, beretzat nahiz bide publikoaren gainerako erabiltzaileentzat sortu duen arrisku potentziala eta proportzionaltasun printzipioa. Orobat aplikatu ahal izango zaizkie gorago finkatutako graduazio irizpideak 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren —azaroaren 23ko 339/2009 Legearen bitartez aldatua— 65.6 artikuluan aurreikusitako arau-hausteak direla eta jartzen diren zigorrei.

18/2009 Legearen azken xedapenetatik bigarrenean adierazten denaren ildotik, kontsumo-prezioen indizearen aldakuntzaren arabera eguneratu ahal izango dira isunen zenbatekoak, Gobernuaren Errege Dekretua dela medio.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

[ERANSKINA: IZAERA URBANOKO BIDEETAKO ERABILERA, TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA
SEGURTASUNA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ARAU-HAUSTE ETA ISUNEN
TAULA](#)